

## **Arabako Foru Aldundia familiak bilatzen ari da 0-6 urteko haurren urgentziazko harrerarako**

*Kanpaina bat abiarazi du adingabeen egoerari buruz sentsibilizatzeko, bereziki "haurtxoak egoitza baliabide batean bizi behar ez izateko beren bizi garapenaren une hain funtsezko batean, hau da, beren lehen hilabete edo urteetan", adierazi du Emilio Sola foru diputatuak*

*Urgentziazko harrera egiteko prest dauden 10 familia behar dira*

**Gasteiz, 2020ko azaroaren 19a.** *"Urgentziazko harrera lehen mailako premia da gure lurraldean".* Hala adierazi du gaur goizean Emilio Sola Gizarte Politiken Saileko foru diputatuak babesgabetasun egoeran dauden haur eta nerabeen harrera konpromisoa hartzen duten familiak aurkitzeko kanpaina baten aurkezpenean. Zehazki, Foru Aldundiko gizarte zorroaren titularrak urgentziazko modalitatea aipatu zuen, zeinaren bidez *"saihesten ahalegintzen baita"* neska-mutil horietako askok, bereziki haurtxoek, *"beren bizitzako lehen hilabete edo urteetan egoitza harrerako baliabide batean bizi behar izatea"*.

Foru diputatuak Aldundiaren jauregian egindako prentsaurreko batean egin du epatzea. Bertan izan dira Rosalén Sánchez Arriola, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Familia Harrera eta Adopzio Unitatearen burua, eta Itziar Martínez de la Hidalga, harrerako ama, zeinak bere esperientziaren berri eman baitu.

Hura eta Arabako Familia Harrerako Programa (Paafa) osatzen duten beste hamar guraso dira protagonista 'Baduzu zer eman, egin harrera-Acoge, tienes algo que aportar' izeneko bideoan, non, lehen pertsonan esaniko kontakizun batetik abiatuta, beste familia batzuk gonbidatzen baitituzte beren etxeak partekatzerara euren premian dauden haurrekin.

Bideoetan sartzeko eta haiek partekatzeko aukera dago, hedapen handiagoa izateko, esteka hauetatik: testigantzak jasotzen dituen bideoa, euskarazko iragarkia eta gaztelaniazko iragarkia.

Emilio Solak gogorarazi du familia harrerara hurbildu nahi duen pertsona oro joan daitekeela foru programak hileroko Gasteizen egiten dituen informazio hitzaldietara. Hurrengo topaketa datorren astelehenean izango da, hilak 23, San Prudentzio Fundazioaren egoitzan (Dato kalea, 43). Nolanahi ere, interesa duen edonor jar daiteke harremanetan Harrera Programarekin, 945 773052 telefonoan eta [acogimiento@araba.eus](mailto:acogimiento@araba.eus) helbide elektronikoan.

### **Familia berri batean sartzea**

Agerraldian, foru diputatuak gogorarazi du, Haurren Nazioarteko Egunaren bezperan, ezen haurrak *"beren familietatik bereizteko beharra"* dela haurtzaroa babesteko esku hartzeetan gerta daitekeen egoerarik konplexuenetako bat.

*"Gure ingurunean badira haur eta nerabe batzuk, hainbat arrazoiengatik, ezin direnak beren jatorrizko familiekin egon, ez direlako gai behar duten arreta, zaintza eta maitasuna emateko.*

*Kontuan izan behar da abandonua, tratu txarrak edo zabarkeria jasan dituztela. Familia berri batean sartzen dira, harreran edo adopzioan, edo babes zentro batean bizitzen hasten dira. Beren behar emozionalei, materialei eta sozialei erantzungo dien ingurune egonkor batean bizitzea da helburua, eta, batez ere, bizi esperientzia positiboak izateko aukera izatea, zoritxarra gainditzen eta jasandako kaltea ahalik eta gehien garatzen laguntzeko, eta aldi berean, beren potentziala ahalik eta gehien garatzeko", laburbildu zuen Emilio Solak.*

Arabak 0-18 urteko adingabeentzako harrera familiak behar baditu ere, haien artean, gaur egun urgentziazko harrera familiak "lehentasunez" behar dituzte neba-arreba taldeek, premia bereziak dituzten adingabeek, nerabeek eta bakarrik dauden adingabe atzerritarrek.

Modalitate horretan, harrerek gehienez sei hilabeteko iraupena dute, salbuespenezko kasuetan izan ezik, eta batez ere sei urtetik beherako haurrentzat dira, haien etorkizunari buruzko erabakia hartzen den bitartean. Adingabe guztiak izan dezakete neurri horren onura, baina "egia esan, instituzionalizazioak kalte nabarmena egiten die haur txikienei"; beraz, haiexei aplikatzen zaie gehien urgentziazko harrera.

### **Helburua da hamar familia izatea datorren urterako**

Halaxe adierazi du Gizarte Politiken Saileko titularrak: aurtan, zazpi adingabe egon dira urgentziazko harreran 3 familiarekin, eta datorren urterako "helburua da 10 familia izatea".

Haurrak harreran hartuko dituzten familiak, modalitate guztiak barne, 73 dira guztira, eta haietatik 28 besteren familiak dira. 28 familia horiek 37 haur eta nerabe hartzen dituzte. Guztira 99 adingabe daude familia harreran.

*"6 urtetik beherako haur batek ere ez luke foru sareko inongo zentrotatik igaro behar. Zentro horietan, talde profesional handiek ematen diete arreta adingabeei, eta onena ematen dute, pandemia garai hauetan ikusi dugun bezala. Baina haur horiek eskubidea dute familia batean garatzeko, beren familietan ezin badute, ingurunerik naturalena eta suspergarriena familia ingurunea baita, denbora laburrerako bada ere", azpimarratu du foru diputatuak.*